



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko azaroaren 24a

135. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—Foru Lege proposamena, 17/2012 Foru Legea, urriaren 19koa, aldatzen duena. Haren bidez, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatu zen. Osoko Bilkurak ezetsi egin du (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta errektiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzelada guztiak berrikus ditzan eta Espainiako Gobernuari beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion. Osoko Bilkurak onetsia (3. or.).
- Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun mentalari buruzko estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plan bat taxutu ditzan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baitan. Osoko Bilkurak onetsia (4. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea garatu dezan, programa-akordioan ezarritako epean garatu ere. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du beharrezkoa dela Iruñearen hiriburutza agiriaren indarraldia mantentzea. Osoko Bilkurak ezetsi du (5. or.).
- Haurrendako politikei buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako erabakiak. Osoko Bilkurak onetsia (6. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

Foru Lege proposamena, 17/2012 Foru Legea, urriaren 19koa, aldatzen duena. Haren bidez, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatu zen.

OSOKO BILKURAK EZETSI EGIN DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko azaroaren 18an egindako bileran, honako foru lege proposamen hau ezetsi egin du: “Foru Lege proposamena, 17/2012 Foru Legea, urriaren 19koa, aldatzen duena. Haren bidez, Batxilergoa, erdi mailako heziketa zikloak eta gizarte garantiako programak irakasten dituzten gizarte ekimeneko ikastetxeen finantzaketa publikoa

arautzen duen uztailaren 3ko 11/1998 Foru Legea aldatu zen”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko azaroaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Osasun Departamentua premiatzen da ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean ustez izandako irregulartasunak aztertzeko”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroa-

ko Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuko Osasun Departamentua premiatzen du ikerketa-espeditente bat abiaraz dezan, Odol Bankutik Tuterako Ospitalera hemoderibatuak eta erreaktiboak garraiatzeko zerbitzua ematean izandako irregulartasunak zehazteko”.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzelada guztiak berrikus ditzan eta Espainiako Gobernuari beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko azaroaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: “Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da unibertsitate-ikasketetarako beken eta laguntzen deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzelada guztiak berrikus ditzan eta Espainiako Gobernuari beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion”.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

“1. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du unibertsitate-

ikasketetarako Nafarroako Gobernuak ematen dituen laguntza eta beken deialdi orokorrean hobetzen ahal diren zertzeladak berrikus ditzan: zenbatekoak, epeak edo Hezkuntza eta Lanbide Heziketako Ministerioaren deialdiaren bidez emandako zenbatekoak.

2. Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du beken gaineko eskumena eskualdatzea eska diezaion Espainiako Gobernuari”.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun mentalari buruzko estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plan bat taxutu ditzan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baitan.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuak, 2021eko azaroaren 18an egindako Osoko Bilkuran, honako erabaki hau onetsi zuen: "Erabakia. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da osasun mentalari buruzko estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plan bat taxutu ditzan Nafarroako Osasun Zerbitzuaren baitan".

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, aipatu erabakia Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen dut. Hona testua:

"Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Nafarroako Osasun Mentaleko Estrategia eta Osasun Mentalari eta COVID-19ari buruzko Ekintza Plana taxutu ditzan.

2. Osasun mentala gizatiartzeko eta duintzeko estrategia bat zertu dezan, langile soziosanitarioei horri buruzko prestakuntza ematea jasoko duena, arreta hobetzeko xedez, gaixoa eta haren familia pairatzen ari direnaren ulermenaz.

3. Oinarritzko Laguntza Psikologikoa gara dezan, PsicAp proiektua osorik ezarrita.

4. Haur eta Gazteen Osasun Mentala sendotu dezan, prebentzio eta detekzio goiztiarreko estrategiak ezar ditzan eta Haur eta Gazteen Osasun Mentaleko profesionalen arteko komunikazio-guneak sor ditzan.

5. Osasun mentalean aditua den gaixoaren figura sor dezan, bere gaixotasuna ezagutzeaz gain beste batzuei gaixotasuna ulertzen eta horri aurre egiten lagundu baitiezaieke.

6. Lehentasuna du suizidioaren prebentzioa eta arazo horren ikusarazpena.

Suizidioa prebenitzeko planak egin beharra dago, Osasunaren Mundu Erakundea eskatzen ari denarekin bat.

7. Populazio-arrazionaltasunaren arabera egituratu dezan Osasun Mentala, halako moduan non sareak eta zerbitzuak gainjartzea ekidinen baita, baliabideak eskualdeen eta sektoreen arabera paratuko baitira eta Osasun Mentaleko sareko baliabide guztien koordinazio eta sinergiarako mekanismoak ezarriko baitira.

8. Itunpeko zentroen gaineko kontrola areagotu dezan, ratioei, langileen prestakuntzari eta instalazioei dagokienez.

9. Osasun Mentaleko sarearen erabiltzaileen eta haien familien kexak jasotzeko sistema bat sor dezan, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren barruan babestuta senti daitezzen saiatzeko.

10. Gaixotasun mental larria (eskizofrenia, nahasmendu bipolarra...) ikusgai egin dezan; hartara, sentsibilizazio-kanpainak egiten dira, baita Hezkuntzan ere, horiek zer diren herritarrei jakinarazteko, estigmatizazioa ekiditearren.

11. Dementzia nahiz bestelako gaixotasun neurodegeneratiboak artatzeko estrategia eguneratu dezan; hartara, Dementzien Diziiplina antzeko Unitatean sartuko da, neurologiarekin eta psikologiarekin lankidetzan.

12. Gaixotasun mentala eta adikzio-arazoak (patologia duala) dauzkaten pertsonen zuzendutako baliabideak gara ditzan; hartara, osasun mentaleko profesionalen eta erkidego terapeutikoen arteko lankidetzaren ezarriko da".

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea garatu dezan, programa-akordioan ezarritako epean garatu ere.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko azaroaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legea garatu dezan, programa-akor-

dioan ezarritako epean garatu ere. Mozioa 2021eko urriaren 8ko 114. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten du beharrezkoa dela Iruñearen hiriburutza agiriaren indarraldia mantentzea.

OSOKO BILKURAK EZETSI DU

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko azaroaren 18an egindako bilkuran, ezetsi du Yolanda Ibáñez Pérez andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak berretsi egiten baitu beharrezkoa dela Iruñearen hiriburutza agiriaren indarraldia mantentzea.

Mozioa 2021eko azaroaren 16ko 131. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko azaroaren 19an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Haurrendako politikei buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako erabakiak.

OSOKO BILKURAK ONETSIA

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2021eko azaroaren 19an egindako bileran, Haurrendako politikei buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako honako erabaki hauek onetsi zituen.

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114. artikuluan ezarritakoa betez, erabaki hau argitara dadin agintzen dut.

Iruñean, 2021eko azaroaren 22an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Haurrendako politikei buruzko Osoko Bilkura monografikoan onetsitako erabakiak

Lehena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1. Neurri eraginkorrak abian jar ditzan gaixorik ez dauden haurren kontrol eta jarraipenerako bisi-tetan eta haurrak txertatzeko egutegian gertatzen ari diren atzerapenei aurre egiteko. Neurri horietako bat izanen da presaz betetzea Oinarrizko Osasun Laguntzan hutsik dauden Pediatriako lanpostuak.

2.- Berehala har ditzan beharrezkoak diren neurriak Pediatriako espezialitateetan eta Haur eta Gazteen Osasun Mentalean izaten ari diren itxaronaldi onartezinak laburtzeko.

3.- Eskubide gisa arautu dezan, desgaitasunaren prebentzioa ez ezik, baita mendekotasunaren prebentzioa eta haurren garapenerako beste nahas-mendu batzuen prebentzioa ere, neurri hauek direla medio: jaioberrien baheketa osoagoa, osasun mentaleko arazoak agertzea saihesteko prebentziozko prestazioak, obesitatearen prebentzioa, eta alkohol, tabako eta droga kontsumoaren eta bestelako adikzioen prebentzioa, jokoarekiko eta pantailekiko adikzioak barne.

4.- Eskubide hau berma dezan: 0-6 urte bitarteko haurrentzako arreta goiztiarra familia eta ingurunea ardatz duten ereduaren arabera egitea, familiaren gaitasunak areagotuz eta ingurune komunitario inklusiboak sustatuz.

5.- Lehenbailehen ebalua ditzan haur eta nerabeen aurkako indarkerien prebentzioari, detekzioari eta erreparazioari buruzko bere politikak.

Bigarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du

1.- Jarrai dezan hezkuntza sistema inklusiboa eraikitzen, aurrera egin dezan eskola segregazioaren aurkako borrokan, eta jarrai dezan aplikatzen onarpenari buruzko 33/2021 Foru Dekretua, berriazko hezkuntza premiak dituzten ikasleen eskolatzeko orekatua lortzeko, eta inklusioari buruzko foru agindu berri bat onesteko urratsak egin ditzan. Foru agindu horrek detekzio goiztiarrerako mekanismoak indartu behar ditu eta hezkuntza ekitate bermatu.

2.- Abiarazi diren akonpainamendu unitateen ildoan, profil sozialekin, hainbat ikastetxetan, jarrai dezan bitartekoak indartzen eskola uztea gutxitzeko eta ikasle guztien arrakasta bermatzeko.

3.- Lanean jarrai dezan 0-3 urte bitarteko haurren hezkuntza hezkuntza sistema publikoan sartzeko.

4.- Gure Komunitateko hezkuntza sistemaren egiturazko ardatz gisa hezkidetzak garatzen jarrai dezan, adingabeek berdintasuna eta aniztasuna bezalako balio demokratikoez jantzitako eta genero baldintzatzailek gabeko hezkuntza jasotzeko duten eskubidea bermatuz.

5.- Adingabeen babes indartua bultzatzea dezan, pornografiarako sarbiderik izan ez dezaten. Horretarako funtsezkoa izanen da Hezkidetzari buruzko Foru Dekretua aplikatzea, curriculumaren barnean jasotzen baitu sexu- eta afektibitate-hezkuntza haur eta nerabeen nahitaezko eskola curriculumaren barnean.

6.- Jarrai dezan apustu egiten Lanbide Heziketa Duala sustatu eta garatzearen alde, hura funtsezko tresna baita gure hezkuntza sistema modernizatzeke, lan irtenbideak eskariei egokitzeko eta gazteei aukera gehiago eta hobeak emateko.

7.- Lanean jarrai dezan, Atzerritarrei buruzko Erregelamenduaren erreformaren ildotik, adingabe atzerritarren eta tutoretzapean egondako gazteen gizarteratzea sustatzeko, prestakuntzarako

baliabideak eta laneratu aurreko baliabideak ego-
kituz, haien berariazko premien arabera.

Hirugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du

1.- Berariazko azterketa egin dezan haurren
pobreziari eta gurasobakartasunari buruz, garatu
diren politiken eta horiek orain arte izan duten era-
ginaren ebaluazioa egin ahal izateko.

2.- Lan bizitza eta familia bateragarri egiteko
behar diren neurri guztiak lehenbailehen aztertu
eta planteatu ditzan, egoera sanitarioa bateraga-
ria izan dadin guraso bakarreko familien lan bizi-
tzarekin eta ekonomiarekin, batez ere berrogeial-
dia egin behar denean.

3.- Jarrai dezan bereziki aintzat hartzen hau-
rren pobrezia, berdintasun printzipioa bermatze
aldera, berariazko neurriak eta proposamenak
aurkeztuz haurren pobreziari eta horren belaunal-
diz belaunaldiko iraupenari aurre egiten lagunduko
dutenak.

Laugarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du:

1.- Garatzen jarrai dezan administrazio publi-
koen jarduketetan haurrek banaka nahiz taldean
parte hartzeko mekanismoak, bakoitzaren adinari,
gaitasunen mailari eta egoera pertsonalari egoki-
tuak, eredu harturik nola jokatu den Haur eta nera-
been laguntza eta babesari eta familia, adingabe-
en eskubideak eta berdintasuna sustatzeari
buruzko Lege aurreproiektua prestatzerakoan.

2.- Langile publikoentzako prestakuntza pro-
gramak gara ditzan, eta haur eta nerabeen egiaz-
ko parte-hartzeari buruzko edukiak gehitu ditzan
unibertsitateko prestakuntza planetan.

3.- Parte-hartze sozial, komunitario eta zibikoa
jaso dezan Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntzako eskola curriculumean, eta
haur eta nerabeek parte hartzeko autonomia gara-
tzea helburu duten prestakuntza jarduerak susta
ditzan eskola esparruan zein kanpoan.

4.- Haur eta nerabeen parte-hartzeari buruzko
prestakuntza planak susta ditzan guraso
elkarteentzat.

5.- Parte hartzeko eta sarean lan egiteko meto-
dologiak indartu ditzan, hala nola ikaskuntza-
zerbitzua delakoa, administrazio publikoen, gizarte
erakundeen eta haur eta nerabeen arteko batera-
ko proiektuetan.

6.- Hainbat ikastetxetako haur eta nerabeek
parte hartzeko topaketei bide emanen dieten
proiektuak susta ditzan.

7.- Horien aplikazioari buruz aholka dezan eta
Nafarroako Gobernuak egindako "Haurrek eta
nerabeek toki mailan parte hartzeko organoak
diseinatzeko gida" zabal dezan.

8.- Parte hartzeko organo egonkorak susta di-
tzan, hala nola haur eta nerabeek parte hartzeko
kontseiluak, bai eta haur eta gazteen elkarte
ehuna ere.

9.- Haur eta gazte elkarteen eta ikastetxeen
laguntzarekin, urtero txosten bat egin dezan uda-
lerrri bakoitzean haur eta gazteek beren eskubide-
ak baliatuz parte hartzeko garatutako proiektuen
nondik norakoari buruz. Txosten horrek jardunbide
egokien berri zabaltzeko balio behar du.

10.- Behar diren baliabideez hornitu ditzan
(material teknikoek zein prestakuntzako materia-
lez) Nafarroako eskualde guztietako haur eta
nerabeak, parte hartzeko duten eskubidea erabili
ahal izateko.

11.- Toki eremuan haur eta nerabeen parte-
hartzea sustatzen duten elkarte komunitarioen
sorrera eta garapena babes ditzan.

12.- Haur eta nerabeek parte hartzeko proiektu-
en garapenerako lokal eta gune publikoen sare
bat antola dezan: parte hartzeko etxeak, kanpa-
mentuetako etxeak eta kanpatze guneak, besteak
beste.

13.- Astia eta aisialdiko proiektu komunitarioe-
tarako dirulaguntzen deialdietan haur eta nerabe-
en parte-hartze sozial, komunitario eta zibikoa
xede duten proiektuak lehenets ditzan. Sarbide
unibertsala sustatzen duten proiektuak lehenets
ditzan.

14.- Desgaitasuna duten haur eta nerabeek
kulturarako eta kirolerako sarbide izateko progra-
mak susta ditzan, eta behar diren baliabideez hor-
nitu, haiek erabili, ulertu eta gozatu ahal izateko.

Bosgarrena.

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gober-
nua premiatzen du:

1.- Adingabeen babesean, hezkuntzan eta
prestakuntzan esku hartzen duten eragileen arte-
ko lankidetzarako ingurunea arau dezan. Horreta-
rako bitartekoak izanen dira adingabeen eskubide-
ak urratzen diren egoeren prebentziorako eta
detekziorako nahitaez bete beharreko protokoloak
eta adingabeak artatu eta babesteko beharrezko-
ak diren jarduketak.

2.- Adingabeak babestu eta artatzeko zentroetako esku-hartze sozialeko langileen arrisku psikosozialei aurrea hartzeko programak indartu ditzan, zentro horietako langileen lan baldintzak nabarmen hobetzen dituen esku-hartze sozialaren arloko hitzarmen berria betez eta hobetuz, kasua bada.

3.- Adingabekoentzako Behaketa eta Harrera Zentroa zuzeneko kudeaketa publikora alda dezan, Gizain fundazio publikoaren ardurapean jarritz, hala aurreikusi baitzen fundazio hori eratu zenean.